



Boluntarioen ekinez egina

Jose Luis Diez

TOKIKOM

BARREN



JUAN MUGUERZA



MAMO WOLDE





Jose Ramon Arocena Iriondo

"Txerra"

**Izan zarena, erakutsi duzun kemena,
gure artean geldituko da zugandik jasotako dena.**

Zure betiko kuadrilla



Jon Salegi Zulaika

"Sarobe"

2023ko urtarrilaren 8an hil zen, 51 urte zituela.

Beti izango zaitugu gure gogoan.

"Kosakos" kuadrilla



I. URTEURRENA

Maria Aguirre Eizaguirre

2022ko urtarrilaren 12an hil zen, 82 urte zituela.

Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, domekan,
urtarrilaren 15ean, 11:00etan, Elgoibarko Bartolome Deunaren
eliz-parrokian. Joango zaretenoi, alde zurretik eskerrak.




V. URTEURRENA

Pedro Mari Esnaola Irusta

"Musillo"

2018ko urtarrilaren 16an hil zen, 88 urte zituela.

**Erraza izan da zu maitatzea, ezinezkoa, ordea, zu ahaztea.
Beti izango zaitugu gure bihotzetan.**



Juan Jose Rey Carretero

2023ko urtarrilaren 10ean hil zen, 77 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

Izan zara gure makulu eta gure etxearen habe nagusia.


Izan zara, senar, aita eta aitona zoragarria.

Bihotzez, eskerrik asko.

Beti biziko zara gure akorduan.

Maite zaitugu.

Etxekoak



Argitaratzailea:



Babeslea: Laguntzaileak:



Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk.
20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112 - 📞 688 655 658

Publizitatea: ☎ 943 743 704 - 📞 688 769 657

barren@elgoibarkoizarra.eus

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

www.barren.eus

BARRENEK bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. Barrenek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta gutunak ataletan adierazitako enantzukizunik. **Koordinatzailea:** Ainhoa Andonegi. **Kazetariak:** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia. **Hizkuntza arduraduna:** Ainara Argoitia. **Publizitatea:** Leire Rubio. **Maketatzailea:** Zaloa Arnaiz. **Atari digitaleko arlo teknikoaren arduraduna:** Aitor Lauzirika. **Administraria:** Amaia Arrizabalaga. **Kolaboratzaileak:** Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Edurne Izagirre, Paula Heras, Ane Astiazaran, Irati Agirreazaldegia, Juan Luis Mugertza, Izaro Etxegibel, Iñaki Goitia, Jose Ramon Cabrera, Alex Segade, Ane Kortaberria, Asier Guisasola, Maialen Sanchez, Lere Kerexeta. **Inprimategia:** Gertu Koop.E. **Tirada:** 4.885 ale. **Lege gordailua:** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855.

 facebook.com/barrenaldizkaria

 twitter.com/barreneus

 instagram.com/barrenaldizkaria

Asier Guisasola Iñiguez

Portu, Ubide eta Bideetako ingeniaria

Norentzat ote da plaza?



“Gure herriko enparantza publikoko egonlekuak autozaleen logikatik eta autozaleen mesederako antolatuak daude”

Donostiako gastronomia elkarte polit batean ospatu genuen arrebaren urtebetetze eguna pasa den abenduan. Bazkideen argazkien koadroa gure mahai ondoan zegoen. Elkarte horretan, beste askotan bezalaxe, oro har 40 bat urtetik gorako gizonezkoak dira nagusi. Elkartera joaten dira lagunekin, familiakoekin edota ezagunekin egotera, bazkaltzera, mus partida jokatzera edota berriketan egitera. Oraindik badago, kuadrilla batzuetan, astero bertara afaltzera joateko ohitura.

Elkarteotako arauak egokiak diren ala ez, beste baterako utziko dut; batez ere, erabilera pribatukoak baitira gehienak. Bertako espazio banaketak, aldiz, zer pentsatua eman dit. Den-denetan ondo-ondo pentsatuta egoten da bertako espazio antolamendua. Elkarteotako egongelen azalera eta erabilera zuzenki proportzionalak izaten dira; hots, jangela eta sukaldea izaten dira egongela handienak eta besteak, erabilera gutxienekoak, txikiak: komunak, despentsa, barra eta diruzainaren gela. Pertsona eta erabilera gehien duten egonlekuek azalera handiagoa dute besteekin alderatuz. Logika eta zentzuz hartutako erabakiak direla esango nuke.

Gure herriko enparantza publikoko egonlekuak, aldiz, autozaleen logikatik eta autozaleen mesederako antolatuak daude. Mendaroar guztion erabilerarako enparantzan dozena eta erdi autorentzako aparkalekua dago eta bertara aparkatzera iristeko ia kilometro laurdeneko errepidea. Auto erabiltzaile gutxi horiek oinezko guztien egonleku azalera erdiaren bestekoa dute herriko enparantzan. Sartu geoeuskadiko web orrian eta neurtu, nahi baduzu. Gogoia ematen dit gastronomia elkartekoren bati galdetzeko Mendaroko enparantzako espazio banaketa ondo-ondo pentsatuta dagoen.

*BARRE*Nek ez du bere gain hartzen *Iritzia eta Eskutitzak* ataletan adierazitakoen erantzukizunik. *Eskutitzak* ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, *NANA* eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: *barren@elgoibarkoizarra.eus*

2023.eko Juan Muguerza krosaren esker ona

Idatzi honen bidez, Elgoibarko Nazioarteko Juan Muguerza Krosaren LXXIX edizioan Mintxeta A.T. batzordeak, eskerrak eman nahi dizkie, nola edo hala, euren laguntza eskaini duten erakunde eta enpresa guztiei. Izan ere, haien eskuzabaltasunari esker, berebiziko arrakasta izan du 2023ko urtarillaren 8an egin zen krosak.

Era berean, eskerrak eman nahi dizkiogu Elgoibarko herriari; alde batetik, ekitaldi hori antolatzeko orduan emandako laguntzagatik, eta bestetik, gure herrira krosean parte hartzeko asmotan etorri ziren atleta guztiei egindako harrera bero eta adeitsuagatik. Leku guztietatik zoriondu gaituzte eta hau Elgoibar osoarekin partekatu nahi dugu.

Horregatik guztiagatik, Elgoibarko herriaren izena, aste betez, mundu osoko kirolaren ikuspuntuan egon da, hedabideak Elgoibarren zer gertatzen ari zen adi egon baitira.

Eskerrik asko, baita ere, komunikabideei, ikusleoi eta bereziki laguntzen egon diren hamarnaka boluntarioei; handiak zarete!

Hortaz, gustatuko litzaiguke lanean jarraitzea, baina horretarako lanerako prest dauden pertsonak ere beharko ditugu, datorren urtekoa aurtengoa bezain ona edo hobea izan dadin. Gero eta zailago da, gu ere oso nekatuta gaude, eta ez dakigu etorkizuna nolakoa izango den. Hala ere, Mintxetan ikusiko dugu elkar, 2024ko urtarillan, krosaren 80. urteurrena ospatzeko. Mila esker.

Mintxeta Atletismo Taldea

120 esker mila!

Giro bikaina aurten ere, urteari agur esateko. Gabon zaharreko ferian hainbat postu, jendea non nahi, bertako produktu eta animaliez gozatzeko aukera paregabea... Aurten ere, Elgoibar Ikastolak Kalebarren plazan txosna jartzeko aukera izan du. Eguraldiak lagundu egin zuen, eta bertan sortu zen giroa aparta izan zen. Oso pozik gaude egindako lanarekin.

Eskerrak emateko garaia da. Eskerrik asko Elgoibarko Udalarri, Debemen Landa Garapen Elkarteari eta brigadako langileei, hainbat baliabide eskaintzeagatik. Eskerrik asko Armueta eta Ziarda harategiei, Eusko Label-dun saihetsa eskaintzeagatik. Manuel Amaro eta Mari Jose Martini, kamioia eskuragarri jarri eta egunean bertan egindako lanagatik. Beristain Logistika banaketari, edari zein beste material batzuk eskaintzeagatik. Lizagasarri bere sagardo eta sagar zukuarengatik; Nekane Altuberi, apaingarriengatik; Jose Ramon Cabrerari, argazkiengatik; Jon Gurrutxagari, esatari lanagatik, eta lanean egon zineten guztioi, eta nola ez, mila esker egunean bertan gerturatu zineten guztioi. Girorik ez da zuek gabe-eta.

Aurten ere, bereziki pozik gaude bi urteko geldialdiaren ondoren ere, 120 pertsona baino gehiago izan garelako antolaketan eta lanean aritu garen ikastolako guraso eta langileak. 120 esker mila zuetako bakoitzarentzat, eta bejondeizuela! Azkenik, gogorarazi nahi dugu txosnan jasotako dirua herri mailan antolatzen ditugun ekimenak finantzatzeko erabiliko dugula: pilota eguna eta Jose Gurrutxaga krosa finantzatzeko alegia. Bere izaerari jarraituz; herritik, herriarentzat.

Elgoibar ikastolako txosnako lan taldea

Juan Santosi gorazarre

Elgoibartik munduko leku askotara joandako abenturazalea izan zen Juan Santos. Hogeita bost urte eman zituen Amazoniako ibai handietako uharteetako batean, eta indigenen hizkuntza ikasi zuen; Mexikoko Unibertsitatean eta Hong Kong hirian ere ikasi zuen; ingelesa eta txinera helduaran ikasi zituen; Txinako ibilbide asko bakarrik egin zituen; Filipinetan bizi izan zen denbora batez, eta hainbat gazte belaunaldiri lagundu zien Iberoamerikako hainbat herrialdetan zehar egiten zituzten hastapen-bidaletan. Hizkuntzalaria izan zen hainbat hizkuntzatan, idazlea eta poeta, kultura amazonikoen ikertzailea, arkeologoa; kristau fededuna izan zen, eta gero, agian, agnostikoa. Gogoko zituen landareak eta zuhaitzak, ehiztaria izan zen oihanean eta arrantzalea aintziretan, sukaldaria fraidea baino lehen, ardiak hazten zituen ardiak ezagutzen ez zituzten leku batean;

arakatu gabeko ibaiak zeharkatu zituen, eta abentura horietako bakoitzean pertsona handia izan zen, gizon atsegina eta jendea benetan ezagutzeko jakin-minik handienaz betea.

Gobernuz Kanpoko Erakundeak eta sasoiko boluntarioak esistitu aurretik, bitzta osoa eman zuen ahaztutako jendeari laguntzen, eta Amazoniako herri indigenen kulturen berreskurapena eta kontserbazioa antolatu zuen, inork horretaz interesik ez zuenean. Gaur eta bihar oihaneko herri horiek nolakoak ziren jakin nahi dutenek bere idazkietara jo beharko dute. Ekuadorreko oihanean aurkitutako azken herri indigenarekin bizi izan zen denbora batez, han egotea oso arriskutsua eta gogorra zenean, eta haien lagun geratu zen betiko. Euren hizkuntza hitz egiten zuen eta indigenek bertakotua zuten. Txinikuro (tximeleta-larba erresumingarria) deitzen zioten, egia esaten zielako, eta batzuetan zintzotasunak azkura ematen duelako. Hala ere, bere agurraren egunean negar egin zuten; esaten zituen egiak samurrak ziren seinale.

Juanito fraide kaputxinoa izan zen urte luzez, eta gero bikotean bizi izan zen; Elgoibar, bere familia, lagunak edo ezagunak harro senti daitezke Juan Santosen bitartez jende behartsu eta ezezagunei egin zioten opariaz.

Miguel Angel Cabodevilla

Eskerrik asko

Aurreko asteburuan Mintxetara hurbildu zinetenok ikusiko zenuten zelaian jarri genuen pankarta erraldoia, aerosorgailu baten itxura zuena. Ez zen izan handikeria kontua, ordea, pankartaren bidez irudikatu nahi izan genuen Karakaten jarri nahi dituzten dorre eolikoek izango lituzketen dimentsio errealak: ia 200 metro luzeran guztira, 70 metrotik gora hegale bakoitzak.

Ekintza honen bitartez berriro ere agerian jarri nahi izan dugu Karakaten Green Capital enpresak eraiki nahi duen zentral eolikoak eragingo lukeen txikizioa, eta berriro ere aldarrikatu nahi izan dugu Karakate Bizirik nahi dugula.

Ezin aipatu gabe utzi ekintza aurrera ateratzen lagundu diguten norbanako eta kolektiboak. Hasteko eta behin, Mintxeta baserriko familia eskertu nahi genuke, beren borondate onenaz zelaia utzi digutelako pankarta jartzeko, eskuzabaltasun eta ulerkortasunez. Zuen elkartasunik gabe ez litzateke posible izango. Udal Kirol Patronatuari eta Juan Mugertza krosaren antolakuntzari ere gure eskerrak, elkarlanerako prestutasunagatik eta kamisetak saltzeko espazio bat eskaintzeagatik. Txalotu halaber krosa antolatzen egiten duten lana, lehen mailako kirol proba bat auzolanean antolatzeaz gain Elgoibar-i eta Elgoibarko herri mugimenduei proiektiorako aukera ematen baitie krosak. Milesker Morkaiko Mendizale Elkarteari eta Kideok igeltsaritzari ere, pankarta egiteko materiala eta espazioa ahalbidetzeagatik. Eta nola ez, dronarekin airetik irudiak hartzen ibili ziren Ion Urbietari eta Joseba Olazabali ere gure eskerrik beroenak, ekimenaren ikusgarritasuna iruditan jasotzearren.

Azkenik, jakinarazi nahi genuke grabaketa lanetan dron bat desagertu zela Mintxeta eta Alcorta tartean, beraz norbaitek aurkituko balu eskertuko genuke gurekin harremanetan jartzea.

Elgoibarko Karakate Bizirik plataforma

BARREneko harpidedunentzako oharra

Buzoiko **B** pegatina falta bazaizu edo hondatuta baduzu, **BARRE**nen bulegora etorri eta berria emango dizugu. Banaketa sistema errazteko behar-beharrezkoa dugu zuen buzoiak pegatinarekin markatzea. Mesedez, ez ezazue pegatina kendu buzoitik. Gure banatzaileek eskertuko dute.



Emakume zientzialariak, erakusleihoetara

Emakume eta Neska Zientzialarien Nazioarteko Eguna da otsailaren 11, eta horren harira, Elgoibarko dendetako erakusleihoak emakume zientzialarien erreferentziekin apaintzera deitu dute Elgoibarko Udalak, Elhuyarrek, Egur Arte tailerrak eta Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak, martxoaren 1etik 19rako. Ekimen honetan parte hartzeko izena eman behar da honako esteka honetan sartuta: <https://labur.eus/GHSEO11>. Urtarrilaren 18a izango da azken eguna.

Kanpaina hau, *011 erakusleihoak*, 2019an jarri zuten martxan estreinakoz eskolaz kanpoko ekimen baten barruan, gazteak zientzia eta teknologiako proiektuak gara zitzaizten. Ekimena Eusaki Herriko gazteentzako ikerketa zentroen sarearen baitakoa



denez, Debako, Mungiako, Barakaldoko, Beasaingo, Bilboko eta Donostiako saltokiek ere bat egingo dute. Ekimenean parte hartuko duen saltoki bakoitzari emakume zientzialari bat proposatuko diote eta haren ikerketa inspirazio gisa hartuta apaindu beharko dute erakusleihoak. Horretarako, Egur Arte tailerrekoen laguntza izango dute. Parte hartzen duten guztien zerrenda eta erakusleihoen argazkiak Elhuyarrek Bizilabe egitasmoarentzako duen webgunean ikusi ahal izango dira.

Udal ordainketak Bizum bidez egiteko aukera izango dute elgoibartarrek

Elgoibarko Udalak Bizum bidezko ordainketa sistema jarri du martxan, herritarrei ordainketak egiteko erraztasunak emateko helburuarekin. Agiriak helbideratu gabe izanez gero, zergak eta tasak ordaintzeko aukera berri bat izango da honakoa (banku-txartelean ere egin daitezke halako ordainketak), eta isunak ordaintzeko ere balioko du sistemak. Sistema hau erabiltzeko ondorengo pausuak jarraitu behar dira:

- Nire ordainketa webgunean ordainagiria identifikatu (zenbakia sartu)
- Finantza erakundea aukeratu (bertan Bizum aukeratu)
- Dirua kargatuko zaion erabiltzailearen telefonoa sartu
- Sistemak bidalitako gakoa sartu

Igeriketa Taldekoen loteria

Igeriketa Taldekoek jakinarazi dute urtarrileko asteazkenetan kobratu ahal dela loterian tokatu zen saria. 19:00etatik 20:00etara egongo dira Kiroaldean duten lokalean.

Eguberrietako zenbaki saridunen berri eman du Txankakua merkatarien elkarteak

Txankakua merkatarien elkarteak jakinarazi ditu Eguberrien bueltan urtero egin ohi duen zozketako zenbaki irabazleak. Hamar sari banatu ditu bezeroen artean: 500 euroko bi sari eta 100 euroko zortzi sari, 1.800 euro orotara. Saria erosketa txeketan jasoko dute irabazleek, eta Txankakua Merkatari elkarteko dendetan gastatu beharko dute. Txartel sarituen jabeek otsailaren 9ra arteko epea dute irabazitako txartelak aurkezteko. Hona zenbaki sarituak eta erreserbakoak:

- 05.583 / 500 euro (Ordezko zenb. 77.662)
- 90.036 / 500 euro (Ordezko zenb. 54.435)
- 39.438 / 100 euro (Ordezko zenb. 51.489)
- 79.190 / 100 euro (Ordezko zenb. 52.645)
- 33.331 / 100 euro (Ordezko zenb. 39.184)
- 92.837 / 100 euro (Ordezko zenb. 89.386)
- 65.926 / 100 euro (Ordezko zenb. 34.623)
- 85.284 / 100 euro (Ordezko zenb. 82.619)
- 40.608 / 100 euro (Ordezko zenb. 36.440)
- 22.854 / 100 euro (Ordezko zenb. 25.104)

Mausitxak irabazi du Debako azokako gazta lehiaketa

Elgoibarko Gabon Zahar Ferian Urteko Gazta Onenaren saria irabazita agurtu zuen 2022. urtea Mausitxak, eta urte berria ere bide beretik hasi du Elgoibarko gaztandegiak, Debako Soro Feri Azokako gazta lehiaketa irabazita. Urteko lehenengo azoka izan ohi da Debakoa, eta han lortutako garaipenari esker, ziurtatuta dute 2023ko Gabon Zahar Feriako lehiaketan parte hartzea. Ilarduiako La Leze baserriko gaztak eskuratu zuen bigarren saria Deban eta Mutrikuko Goienetxe baserriak aurkeztutako gaztak lortu zuen hirugarren saria.

Era berean, ezti lehiaketa ere egin zuten Deban, eta bi eztingile elgoibartar saritu zituzten. Bergarako Erlantza Olabariak jaso zuen lehen saria, epaimahaiak emandako 23,9 puntuei esker,



Elgoibarko Jose Alberto Egurennek bigarrenkoa (23,7 puntu) eta Julian Villenak aurkeztutako eztiak jaso zuen hirugarren saria, 23,2 puntu batuta.

Dolmenen ibilbideko aurkikuntzen berri emango du Jesus Tapia Aranzadiko arkeologoak, Elgoibarren

Karakatetik Hirukurutzetara bitartean dagoen Dolmenen Ibilbideko indusketen eta azken aurkikuntzen berri emango du Aranzadi Zientzia Elkarteko Jesus Tapia arkeologoak (Astigarraga,

1973), hilaren 19an (eguna), Elgoibarren. Morkaiko Mendizale Elkarteak antolatu du hitzaldia eta Aita Agirre kulturguneko areto nagusian izango da, 19:00etan hasita.

Karakaten ezarri nahi duten aerosorgailu baten neurriko pankarta zabaldu du Karakate Bizirik-ek Mintxetan



Karakate Bizirik Plataformak Mugertza krosaren ikusgarritasuna baliatu zuen Karakaten jarri nahi dituzten aerosorgailuen benetako tamaina herritarrei erakusteko. Mintxeta baserriko zelaian 180 metroko altuerako eta 70 metroko hegalkak dituen aerosorgailua irudikatzeke pankarta jarri zuten, orain arte Elgoibarren inoiz jarri den pankartarik handiena. 'Mendietan ez! Karakate bizirik' mezua idatzi zuten pankartan. Bestalde, Debarreneko Lurralde Plan Partzialari ekarpenak egiteko kanpaina abiatu dute sare sozialetan dituzten kanalen bidez.

Juan Santos Ortiz de Villalba misiolari elgoibartarra hil da

Juan Santos Ortiz de Villalba Urbietta Añana misiolari elgoibartarra hil zen abenduaren 31n, Gasteizen, eta haren omenezko meza egingo dute domekan parrokian, hain justu ere Hartzaro Misiolariaren Nazioarteko Egunean.

Añana Elgoibarren jaio zen 1939an. CICAMEn (Ekuadorreko Amazoniaren ikerketa kulturalen zentroa) sortzailea izateaz gain, Amazoniaren bihotzean dagoen Ponpeiako Museo Indigenaren zuzendaria ere izan zen. Lehen Hezkuntzako ikasketak Altsasuko Seminarioan egin zituen. Ondoren, Filosofia ikasi zuen Zaragozan eta Teologia Iruñean. 1959an sartu zen Kaputxinoen Ordenan, eta 1965etik aurrera, 25 urte zituela, Aguarikoko Prefektura Apostolikoaren Kaputxinoen Misiora joan zen. Fraide kaputxinoa izan zen urte askoan; 25 urte eman zituen Amazonian eta indigenen hizkuntza ikasi zuen. 1971tik aurrera, Antropologia eta Arkeologia ikasi zituen Mexikon, eta Amazoniako oihanera itzuli zen, 1989ra arte. Jarraian, txinera ikastera joan zen Hong Kongera, eta sei urtez egon zen han. Ondoren, Manilara joan zen bizitzera (Filipinak), eta han Zentroko Erresuma (Tsun Kuo) izeneko misio batean jarraitu zuen bere lana. Iberoamerikan, berriz ere, 12 urte baino gehiago eman zituen Miguel




de la Quadra Salcedorekin bere Ruta Quetzal ospetsuan lanean, eta kapilau funtzioa bete zuen nerabeekin.

Gerora, Kaputxinoen ordena laga eta familia osatu zuen. Bere emaztearekin bizi izan zen Bartzelonan, eta Gasteizen hil zen.



%25eko beherapena
edozein izara
eta mantetan!



San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - www.textillagunak.com

Gerra osteko euskalgintzari lotutako materiala bildu nahi du Elgoibarko Udalak

Iazko udaberrian abiatu zuen Elgoibarko Udalak Euskararen Historia Soziala jasotzeko proiektua, gerraosteko euskalgintzaren memoria jaso eta zabaltzeko asmoz. Elgoibarko euskararen historia sozialaren berri eman nahi dute. Horretarako, lanaren lehenengo zatian, gerraostetik 80. hamarkadara bitarte, Elgoibarren euskalgintzan egindako lanaren testigantza jaso dute. Zeregin horretan Badihardugu eta Elgoibarko Izarra elkarteak izan ditu bidelagun Udalak. Dagoeneko, 21 herritarren testigantza jaso dituzte Badiharduguren laguntzaz, eta herritarren eskura jarri dituzte *ahotsak.com* webgunean. Horrez gain, garai hartako materiala eskuratzeak proiektu honetarako duen garrantzia azpimarratu nahi dute Udalak eta Elgoibarko Izarrak. Sasoi hartan, euskararen arloan sortu eta erabiltzen zen materiala (kartelak, esku-orriak, argazkiak, diskoak, liburuak, komikiak, ipuinak...) jaso nahi dute, horiek guztiak modu



digitalean gordetzeko. Horretarako, herritarrei egin diete gerra ostetik 1990era arteko materiala izanez gero, lagatzeko. Arduradunek materialen kopia digitalizatuak egingo dituzte, eta originalak jabeei itzuliko dizkiete. Materiala Elgoibarko Izarra elkartearen bulegora eraman behar da (Aita Agirre kulturegunea, 3. solairua). Informazio gehiagorako 943 741 626 zenbakira deitu edo elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus helbidera idatzi daiteke.

Ikastolako DBH4koek egin dute errifaren zozketa

Ikastolako DBH4ko ikasleek errifak saldu dituzte ikasbidairako dirua biltzeko, eta dagoeneko egin dute zozketa. Hauek dira zenbaki saridunak: 1. saria: 1053 (erreserbakoa: 1993). Boleto honen jabeak

jatordu bat irabazi du Belaustegi jatetxean. 2. saria: 2214 (erreserbakoa: 0317). Bigarren saria, Gabi jatetxerako jatordua da. Saridunak hilabeteko epean aurkeztu beharko du boletoa Ikastolako bulegoan.

Otsailerako eta martxorako ekintzak erabakitzeke batuko dira 'Aldenik Alden' egitasmoko erabiltzaileak martitzenean



Aldenik Alden egitasmoko arduradunek datozen bi hilabeteetarako ideiak antolatzeke ideiak jaso nahi dituzte, eta horretarako, egitasmoko erabiltzaileekin bilduko dira martitzenean. Eguerdia aldera irtengo dira hezitzaileak kalera postu ibiltari batekin, eta dinamika horren bidez jasoko dituzte proposamenak.

Bestalde, izena emateko modua aldatuko dutela jakinarazi dute arduradunek. Aurrerantzean, izena emateko epearen barruan izena ematen duten guztien artean esleituko dira plazak, zozketa bidez, eta plaza tokatu zaien horiek bakarrik egin beharko dute ordainketa.

ILUSIOA EKARRI DUTE

✍ Ainhoa Andonegi
📷 Ainhoa Andonegi / Ainara Argoitia

Opariz beteta iritsi ziren Meltxor, Gaspar eta Baltasar Elgoibarrera eta Mendarora. Umeen gutunak jaso ostean, gau osoa eman zuten opariak banatzen, eta Errege Egun goizean pozik esnatu ziren etxeko txikienak, erregeek utzitakoak zabaltzera. Beraien lanak amaituta, Ekialderako bidea hartu dute berriro erregeek. Argazki gehiago ikusteko: barren.eus







JOSE LUIS DIEZ

Mintxeta atletismo taldeko kidea

✍ Ainhoa Andonegi / 📷 Ainara Argoitia



Jose Luis Diez (Mendaro, 1954) seme gaztea atletismoan hasi zenean sartu zen Mintxeta atletismo taldean laguntzera, eta beste hainbat lanen artean, Mugertza krosetako antolakuntzan sartu zen. Ego Toki elkarteak antolatzen zuen lehen Mugertza krosa, baina haiek laga zutenean, Mintxeta atletismo taldeak hartu zuen krosaren ardura. 22 urte daramatza Diezek Mugertza krosa antolatzeko arduretan, eta lan horri aitortza egin berri dio klubak berak, bera omendu dutelako 2022ko Kirol Sarietan. Pozik hartu du Diezek saria, baina lantalde osoari dagokion saria dela nabarmendu du. Mugertza krosa antolatzen jende askok hartzen du parte, eta guztiei eman dizkie eskerrak, boluntarioei eta krosaren babesleei, denen artean egiten dutelako atletismoa handi Elgoibarren.

“Mugertza krosari esker Elgoibar oso ezaguna da munduan zehar”

Astelehena da, Mugertza Krosaren biharamuna. Egiguzu aurtengo edizioaren balorazioa.

Jendea oso pozik geratu zen, eta kanpoko korrikalariak oso pozik joan ziren etxera. Gure partetik, balorazioa ona da. Aurten ezin izan ditugu korrikalari kenyarrik ekarri, baina hala ere, maila handiko lasterkariak izan ditugu. Emakumezko seniorren lasterketa oso ona izan zen, eta juniorretan ere lasterketa politak ikusi genituen.

Mugertza krosa ikuskizun handia da, baina ikusten ez den lan handia dauka atzetik. Nola antolatzen duzue krosa?

Lan handia da, eta jende asko inplikatzeko gara. Irailean hasten gara bilerak egiten zein korrikalari ekarri nahi ditugun pentsatzeko, baina ia urte osoan daude lanak. Gero managerren bitartez egiten ditugu kontratazioak, baina zaila izaten da guk nahi ditugun korrikalariak ekartzea. Afrikarrei traba burokratikoak jartzen dizkiete askotan beraien herrialdeetatik irteteko,

baina hala ere, ahalegintzen gara beti onenak ekartzen. Nahi izaten dugu urte batean hemen irabazten duena hurrengo urtean berriz ekartzea. Alde batetik, lan hori dago, eta bestetik kros eguneko montajea. Eskerrak hemen bagauden atletismoa gustuko dugun zoro batzuk! 80 bat lagun behar izaten dira egunean bertan, eta krosa amaitzean, dena batu behar da. Hori izaten da lanik gogorrena. Baina ondo egindako lanak satisfazio handia ematen du.

Krosaren eguna bera nola bizi izaten duzu?

05:00etan Mintxetan nengoen domekan! Ezin izaten dut lorik egin, eta nahiago izaten dut hara joatea. Urduri egoten naiz. Lehenengo lasterketari hasiera ematen zaion unean hasten naiz lasaitzen, eta hortik aurrera dena hobeto joaten da. Ni helmugan egoten naiz, argazkilariak eta jendea apur bat zaintzen. Egun handia izaten da.

22 urtez ari zarete krosa antolatzen, eta 2022ko

Kirol Sarietan zuri eman dizu saria klubak. Zer sentitu duzu?

Sorpresa izan zen eta pozik hartu nuen, baina sari hori ez da nirea bakarrik; talde guztiarena da. Eskerrak eman behar dizkiet modu batean edo bestean krosa antolatzen aritzen diren guztiei, bai boluntarioei, eta baita babesleei ere, azken batean, beraiei esker delako posible krosa antolatzea. Seme gaztea atletismoan hasi zenean sartu nintzen ni klubean, laguntzera, boluntario, eta handik bi urtera Ego-Tokik krosa antolatzeari utzi zion. 22 urte pasatu dira ordutik! Erreleboa hartzeko moduan gaude dagoeneko; adinean aurrera goaz eta laster laga egin beharko dugu, baina momentuz ez dago ordezkorik.

Zigorri zure semea bihurtu da Krosaren aurpegi azken urteotan. Harro al zaude?

Bai, jakina. Zigorri asko gustatzen zaio atletismoa eta antolakuntzan laguntzen hasi zitzaigun. Orain berak hartu digu aurrea. Komunikabideak ere lotzen ditu, eta kazetari eta argazkilari pila bat etortzen dira orain. Ingelesez ere egiten du, eta korrikalariekin harreman ona egin du urteetan. Sare Soziales bidez ere asko hitz egiten du beraiekin, eta atzo bertan Baregarekin ere egon zen hizketan. Hona etortzen diren korrikalariekin harreman handiena berak dauka. Londresera Munduko Txapelketara joan ginenean ere ez ginen oharkabea pasatu. Mugertza krosa irabazitako Kiprotok irabazi zuen proba bat, eta amaieran estadioari buelta eman zion ikusleak agurtzeko. Gure parera iritsi zenean, Zigorrek deitu egin zion eta guregana hurbildu zen. Sekulako besarkada eman zion, eta argazkilari guztiak etorri ziren une hori jasotzera. Gogoratze hutsarekin emozionatu egiten naiz.

Elgoibar bezalako herri batentzat zer da Mugertza krosa?

Sekulakoa da. 2017an Londresen egon ginen Atletismoko Munduko Txapelketan, eta harrituta geratu nintzen jendeak egin zigun harrerarekin. Elgoibarkoak ginela esaten genuenean, denek primeran hartzen gintuzten, denek ezagutzen zuten Elgoibar, bai korrikalariek, bai managerrek,



Jose Luis eta Zigor Diez aita-semeak.

"Erreleboa hartzeko moduan gaude; adinean aurrera goaz, eta laster laga beharko dugu, baina momentuz ez daukagu ordezkorik"

hoteletakoek... Mugertza krosari esker Elgoibar oso ezaguna da atletismo munduan, bai Espainian eta baina kanpoan ere. Izugarria da! Maila honetako proba bat horrelako herri txiki batentzat gauza handia da. Beste kros asko hiri handietan antolatzen dituzte, Sevillan edo Burgosen esaterako, baina gurea herri txiki bat da horien aldean, eta Munduko hamar kros onenen artean gaude. Elgoibartarrak harro egoteko moduan gaude. Zaila izango da gaur egun daukagun mailari eustea, gero eta traba handiagoak jartzen dituztelako, baina ahalegina egingo dugu.

Elgoibarrentzat gauza handia da krosa, baina parte hartzen duten korrikalarientzat zer da Mugertza krosa?

Beraientzat ere berezia da, eta oso pozik etortzen dira. Lasterketa bukatzean ikusleek egiten dieten harrera hunkigarria izaten da. Harmailak beteta zeuden domekan, eta ikusleak pistatik oso gertu egoten dira hemen. Beste krosetan ez dute horrelakorik aurkitzen. Aurten Espainiako atletismoko presidentea etorri da krosa ikustera. Berak Lerun ezagutzen zuen han parte hartutakoa delako, eta aurten semea ikustera etorri da estreinakoz Mintxetara. Harrituta geratu zen hainbeste jende ikustean. "Hau sinestezina da. Hainbeste jende eta gainera sarrera ordaintzen!", esan zidan. Sevillan, esaterako, Italica krosa egiten den ingurunea monumento historiko askoko

leku turistikoa da, eta sarrera kobratzen dute hura ikusteagatik, baina kros egunean debalde izaten da sarrera. Horregatik, jende askok egun hori aprobetxatzen du gune hartara doan sartzeko. Elgoibarren, baina, badago kroserako afizioa. Eguraldi txarra egin arren, jende asko etortzen da. Ikuskizun handia ematen dute korrikalariak, zirkuitoa bera ere exigentea delako. Euria egiten badu, gainera, lokatzez betetzen da ibilbidea, eta horrek ikusgarriagoa egiten du. Aldapak, lokatza... benetako krosa da gurea.

Korrikalariak oso ondo hartzeko fama dauka Mugertza krosak atletismo munduan.

Bai, hala da. Beste leku batzuetan korrikalariak hotelera eramaten dituzte taxian eta han geratzen dira, ahaztuta, baina Elgoibarren beraiekin egoten gara. Zigorrek askotan eraman izan ditu Ikastolara edo Herri Eskolara bertako ikasleekin egon daitezen. Beraiekin bazkaldu edo afaltzen dugu, herria erakusten diegu, aireportutik ekarri eta bueltan ere eramaten ditugu, Udalean ere harrera egiten zaie... Oso gertuko tratua ematen diegu hemen, eta eskertzen dute.

Elgoibarko korrikalariak ere hartzen dute parte Mugertza krosean. Badago atletismorako zaletasunik herrian?

Badabilta neska-mutilak atletismoan, baina kirol gogorra da, eta aurrera segitzea zaila da. Kirol indibiduala da, eta adin batetik aurrera neska-mutilek nahiago izaten dute eskubaloia edo futbola. Nire seme gaztea ere hasi zen, eta ona zen, Gipuzkoako txapelketaren bat ere irabazi zuen, baina gero eskubaloira pasatu zen. Herriko jendearentzat Mugertza krosean parte hartzea gauza handia da. Aurten ere hartu dute parte batzuk, eta seniorretan Igor Torres ikusi genuen helmugan poze zoratzen. Beraiantzat helburua izaten da ez doblatzea, eta hori lortu zuen.

Egungo mailari eustea zaila izango dela aipatu duzu. Zergatik?

Batetik burokrazia dago, korrikalariak zailtasunak jartzen

dizkiete askotan beraien herrialdetik irteteko, baina horrez gain, dirua ere arazo bilakatu da. Korrikalariak dirua dagoen probetara joaten dira, eta dirua maratoietan dago. Lehen, korrikalariak 30 urte ingururekin hasten ziren maratoietan parte hartzen, baina gaur egun 22rekin hasten dira asko. Hala ere, jarraituko dugu onenak ekartzeko ahalegina egiten. Gustatuko litzaiguke Jakob Ingebrigtsen norvegiarra ekartzea.

Krosari lotutako anekdota eta kontu asko izango dituzu hainbeste urtean. Zein daukazu gogoan iltzatuta?

2017an Mamo Wolderen seme-alabak etorri ziren Elgoibarrera, eta oso hunkigarria izan zen. Mamo Wolde historikoa izan da Elgoibarren. Lau aldiz irabazi zuen Mugertza krosa eta fama handia hartu zuen. Haren seme-alabak Elgoibarrera etortzea oso polita izan zen guretzat. Eta krosari lotuta, beste kontu asko ere badituzte. Ni Mendarotik oinez etortzen nintzen Lerunera krosa ikustera. Altzolan meza entzun lehenengo, eta ondoren, krosera. Karkizano gainean bost pezeta ordaintzen genuen sarrera, eta San Pedroko etheen aldera jaisten ginen handik. Urte pila batean joan nintzen Lerunera. Dokumental bat ere egin zuten krosari buruzkoa, eta irudi batean agertzen nintzen ni, Zigorrekin, bera ume-umea zela. Irudi hura telebistan ikusteak ilusio handia egin zidan.

*"Oso gertuko tratua ematen diegu
hemen korrikalariak
eta asko eskertzen dute"*

Astelehenean Mintxetan lanean jardun zen boluntario taldea.






ONENAK MINTXETAN

✍ Ainhoa Andonegi
📷 Asier Orbea / Jose Ramon Cabrera

Ia 900 korrikalarik hartu zuten parte hamabi lasterketatan banatuta, eta beste behin ere, handia izan da Mugertza krosa. Euripean eta lokatzetan egin zuten korrika gehienek, eta azkenean eguzkia bera ere batu zen atletismoaren festara. Mintxetako harmailak gainezka zeuden, eta ikusleak zirkuito osoan zehar batu ziren, korrikalariei txalo egiteko. Seniorren lasterketek piztu zuten interes handiena, eta espektatiba guztiak betez, afrikarrak izan ziren nagusi. Emakumezkoetan, Rahel Danielek estreinako garaipena eman zion Eritreari eta gizonezkoetan, azken orduan fitxatu zuten Selemone Barega etiopiarra izan zen azkarrena. Argazki gehiago eta emaitza guztiak: barren.eus











“Nahi nuena eta nahi nuen gisan egiteko askatasuna hartu dut”

ODEI BARROSO

Bertsolaria eta musikaria

✍️ Ainara Argoitia / 🎥 Pletina Films

Apirilean argitaratu zuen Odei Barroso Gomila 'Ødei'-k (Urruñia, 1988) lehen bakarkako lana: 'Terapia'. Bi urteko lanaren emaitza izan zen 'Terapia', eta lan hori aurkeztera dator -datoz- bihar Elgoibarrera, Sinuösek gonbidatuta. Bertsolaria eta raperoa da Odei, eta hiru disko kaleratuak ditu aurrez 2zio taldearekin: 'Pausuz Pausu' (2013), 'Bideak' (2015) eta 'Orain eta hemen' (2018). Rapero soil izatetik, baina, ia dena berak egitera pasatu da orain, auto-ekoizpenaren bidea hartuta. Hala, berak eta Jo Olaskuagak [2zio taldeko *beatmakerra*] osatzen duten Alkimia Prod-enak dira 'Terapia' diskoan dauden musika ekoizpen guztiak. Sotoan emango du bihar kontzertua, 23:00etan.

2020an atera zenituen 'Terapia' kantua eta bideoklipa, eta aurten eman duzu argitara izen bereko diskoa. Denbora hartu duzu. Gustura zara emaitzarekin?

Bai, biziki prozesu luzea izan da, akigarria ere bai batzuetan, baina biziki kontent naiz emaitzarekin. Begira, 2zio ez zela sobera aitzinatzen ikusirik ekin nion bakarkako lanari eta garbi nuen beharrezkotzat jotzen nuen denbora

hartuko nuela. Kontua da 2020ko udaberri aldera hasi nintzelarik proiektu hau lantzen, oraindik ez nekiela ondo instrumentalak egiten, ez eta gaur egiten dudan guztia egiten ere. *Terapia* bi urteko ikasketa prozesua izan da niretzat, prozesu luzea. 2zion ez nuen ekoizten musikalik; rapeatu egiten nuen. Kasu honetan, aldiz, gehiena nik bakarrik egin dut, eta bestela, Jorekin batera. *Terapia* atera nuelarik, neure buruari erran nion baietz, egin nezakeela. Barnera begirako urrats handia izan da zentzu horretan *Terapia*. Bideogintzan hasi berri nintzela egin nuen bideoklipa ere, eta frogatu nion neure buruari aitzina egin nezakeela. Beti izan dudalako rapero bezala beldur hori. Orain, maiz galdetzen diot neure buruari nola ez nuen bakarrik aritzeko erabakia aurretik hartu, baina proiektu hau hasi arte zalantza anitz nituen bakarrik ateratzeko. Bideoklipetik diskora hainbeste denbora egon da, bideoklipa atera nuenean hiru kantu bakarrik neuzkalako eginda. Hala ere, atera nahi izan nuen hura, nolabait errateko lanean ari nintzela eta zerbait bazetorrela.

Bazenuen ideia hortaz diskoa ateratzeko.

Nahi nuen lan luzeagoa eta borobilagoa atera, baina nik ere ez nuen garbi bost kantu edo hamabost bilduko zituen. Gauzak finkatu gabe aritu naiz, baina errateko nuena sartu dut. Lan handia egin dugu, bereziki soinuaren trataeran.

"Rapero bezala, beti izan dut bakarrik ateratzeko beldur hori". Plazaz plaza bertsoan

dabilenarengandik hori entzutea bitxia ere bada.

Jendeak, ikusten gaituelarik bideo batean edo bideoklip batean, pentsa dezake biziki ausartak garela eta harro-harro goazela biziaren gaindik, baina maiz kontrakoa izaten da, eta nire kasua hala izan da; konplexuz eta beldurrez beterikoa izan naiz luzaz eta pixkanaka ari naiz gainditzen. Talde batekin ari zarenean, eta kontzertura jende gutxi doalarik ere, beti duzu babes hori; zure izenean zoazelarik, ez dago halakorik, onerako eta txarrerako. Bertsoa eta rapa biak egin ditut beti, baina biziki ezberdinak izan dira, bai egiteko moduan eta baita bizitzeko moduan ere. Esposizioa oso desberdina da mikro baten atzean bertsoan ari zarelarik edo rap proiektu bat defendatzen ari zarelarik.

"Beti ibili naiz bazterrak borobiltzen; urteak pasatu ditut hitz zuzenak idazten", irakurri genizun. Askatu al zara hortatik?

Bai. Musika egiten ez nuenean jartzen nuen indar bera jarri dut orain ere letrak egitean, baina lehen, beti sentitzen nuen egokia denaren eta ez denaren parametroen erdian ibili behar bat, politikoki zuzena izan behar hori, eta askatu naiz hortatik. Ez dut inolako konplexurik izan errateko erran nahi nuena, inoiz baino asumituago daramadalako nire mezua, pentsamendua eta raparekin egin nahi dudana. Diskoan oso gutxi neurtu dut zer erraten ari nintzen eta ez naiz jarri pentsatzen jendeak nola hartuko duen.

Gaitegi zabala darabilzu kantuetan. Hori bai, Odei haserretu bat suma daiteke askotan.

Bai, hala da, diskoan denetarik dagoela esango nuke. Bada haserretik, eta anitz gainera, lan honetan ez naizelako mugatu eta erabili dudalako rapa, rapero gehienek bezala, adierazteko barruan daramadana. Nire bizitzan eta aldarrietan haserrea dago, badaudelako gauza asko akitzen nautenak. Rapa bera, gainera, bada estilo bat, hizkuntza bat eta kode bat -bederen nik entzuten dudana raparen %90a- amorrutza, zer erran handia duena. Hitzetan eta musikalki gustuko nuena, nahi nuena eta nahi nuen gisan egiteko askatasuna hartu dut.

Hegozentrismoagatikoa haserrea esaterako, ezta?

Aspalditik dudana aldarria da, bai, baina beharbada nehoiz ez nuen esplizitatu diskoan bezainbat. Beti amorrarazi nau ertzak baztertzeko

"Biziki eskertua naiz nire mezua plazaratu dezakedanean ehuneko ehunean ulertzen nauen jende artetik kanpo ere"

joera horrek. Nekatua naiz, bizi guzia daramagulako pairatzen Ipar Euskal Herriaren ukazioa.

Sotoan arituko zara bihar, Sinuösek eskatuta. Bada Sinuöse kontrakulturari eta periferiei ere atea zabaldu zalea. Zer dira zuretzat aukera hauek?

Biziki eskertua naiz nire mezua plazaratu dezakedanean ehuneko ehunean ulertzen nauen jende artetik kanpo ere, eta are gehiago sotoa bezalako leku berezian denean, uste baitut zentzu gehiago hartzen dutela ertzek edo bazterrek halako lekuetan. Soinu mailan proiektua exigentea da, eta egokitu beharko gara, baina nahi dugulako goaz, pozik. Biziki eskertzen dut deitu izana eta beste estiloei eta periferiei arreta jartzea, uste baitut herri eta pertsona gisa ere on egiten digula horrek.

Entzule izango dituzunei zerbait aurreratuko zenieke?

Diskoa bera eskainiko dugu, baina zuzenean. Askoz dinamikoagoa da *Terapiak* zuzenekoan, beste indar bat du, eta espero dugu jendea sartzea gure unibertso horretan. Proiektu hau ehuneko ehunean naiz ni, Odei, eta hori dut eskaintzeko.

Beste zerbait ere izango duzu esku artean...

Nik beti behar dut sortu eta badut beste proiektu bat Baiona, Itsasu eta Hazparneko beste musikari batzuekin. Rap proiektua da hau ere, baina banda batekin. Bestetik, biziki zentratua ibili naiz azken urtean Hendaian nire estudioa sortzen. Rapa ekoizteko eta grabatzeko estudio bat da, raparen neurrira egindakoa. Iparraldean raperoak biltzeko eta lan egiteko leku bilakatzea nahi nuke. Batetik, beharra dagoelako sortu dut, eta bestetik, ez dudalako nahi ikasten dudana niretzako bakarrik gordetzea. Uste dut jakintza partekatzea beti dela ederra eta anitz ikasten dela besteekin. Inork ez badu nahi apusturik egitea raparentzat, ongi, baina guk, bederen, gurea egingen dugu.

Morkaiko-Leizarpe espeleologia taldea, zigilu erakusketako omendua

Morkaiko-Leizarpe espeleologia taldeari eskainiko dio aurten Altzolatarren Dorretxeak San Anton egunaren harira antolatu ohi duen zigilu erakusketa. Bihar, hilak 14, zabalduko dute erakusketa, Kultur Etxeko erakusketa gelan, 12:00etan, eta hilaren 21a arte, goiz eta arratsaldez bisitatzeko aukera izango da, ondorengo ordutegian: aste barruan, 18:30etik 20:30era, eta jaiegunetan, berriz, 12:00etatik 14:00etara goizez, eta 18:30etik 20:30era arratsaldez.

1973. urte aldera sortu zuten Leizarpe espeleologia taldea Elgoibarko eta Mendaroko lagun talde batek. Inguruko leizeetan-eta esplorazio xumeak eginak ziren ordura arte, baina aitortua dute urte hartako apirilean Eibarko Club Deportiboaren Kezka aldizkarian irakurri zuten artikuaren bidez deskubritu zutela gure eskualdeko lurpeko munduaren benetako dimentsioa eta



potentziala. Itziarko Aixa kobazuloaren barrunbeak ezagutu zituzten orduan eta berehala ekin zioten espeleologiaren praktikari "modu gutxi gorabehera metodiko eta planifikatuan". Urte hartan esploratu zituzten Mendaroko Aitzbeltz kobazuloa eta Atxuriko harkaitza, Kilimon bailararen azken muturrean hasten den aristan gora igota, eta 1974an pasatu ziren Morkaiko Mendizale Elkartearen parte izatera. Jose Manuel eta Angel Maria Tobajas anaiak eta Santo Diez izan ziren lehen kideak. Lagun berriak batu zitzaizkien gero eta kontaezin esplorazio egin eta argitalpen mamitsuak kaleratu dituzte ordutik.

Pirritx, Porrotx eta Marimotots Elgoibarren izango dira hilaren 20an



35 urte beteko ditu Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazo taldeak, eta *Urteak bete, abenturak bizi* emanaldia sortu dute horren kariatara, urteak betetzea garrantzitsua bada, are gehiago delako abenturak bizitzea. Eta horixe proposatzen dute hilaren 20rako, beste abentura bat bizitzea. Bi emanaldi izango dira, 17:00etan bata eta 19:00etan bestea, eta sarrerak salgai daude Herriko Antzokiaren webgunean: www.herrikoantzokia.eus

Tik Tara taldeak kontzertua emango du San Anton Egunean

Emudafek antolatuta, Tik Tara taldeak kontzertua emango du hilaren 17an, San Anton Egunean, Herriko Antzokian. Hego haizeak dakartzan soinuen eta kantauriko kresalaren arteko konbinazioa da Tik Tara. Ibilbide ezberdineko bederatzi muskariz osatua, hamaika instrumentuz, munduko erritmo eta melodiak nahasten ditu, euskaraz abestutako letrekin. Proiektu hau ondorengoek osatzen dute: Ander Zulaika eta Iñigo Egia (bateria eta perkusioa), Amaia Ureta, (pianoa), Aritz Luzuriaga (baxua), Jose Gallardo (saxofoia), Beñat Isasti (tronpeteta) eta Harkaitz Bastarrika (ahotsa). 12:30ean hasiko da emanaldia, eta sarrera doan izango da.



Maddi Zabalaren 'Vueltas' laburmetraiak saria jaso du

Maddi Zabala elgoibartarraren eta haren unibertsitateko ikaskideen *Vueltas* laburmetraia saritu zuten abenduan Bilboko Homeless film festibalean, Besarkada sailean. Garaikur bat, taldekide bakoitzarentzako diploma bana eta FNAC dendan gastatzeko 150 euro eman zizkieten saritzat.

Ikusentzunezko Komunikazio Gradua ikasten ari da Zabala Leioan eta azaldu du Komunikazio Kooperatibo Komertzial eta Instituzionala ikasgaiaren barruan urtero izaten dutela aukera gizarte bazterketa arriskuan daudenen inguruko film labur bat sortu eta lehiaketara aurkezteko, eta hala egin zutela eurek. Bilbon grabatu zuen filma Zabalaren taldeak, eta lehiaketara aurkeztu zituzten zortzi lanen artean euren apartatu zuen



epaimahaiak. Maddi Zabalez gain, Aitor Ugidos, Sara Zabala eta Iratxe Ugartetxeak osatzen dute taldea. Laburmetraia grabatzea ikasgai handia izan dela azaldu du Zabalak. Bizitzan kudeatu ezin izan zituzten hainbat konturen ondorioz kale gorria ezagutu duten hainbat lagunekin egin zituzten grabazioak eta aitortu du gogoetarako bidea ere eman zela lan honek. "Balio izan digu jende baten errealitatea bertatik bertara ezagutzeko eta baita ere ikusteko, ustekabean, dena aldatu daitekeela bizitzan eta eroso bizitzetik kalean bizitzera pasa daitekeela, tarte oso laburrean".

Amildegi taldeak kontzertua emango du bihar, zapatua, Elgoibarko Kultur Kafean

Gaizka Urangak (bateria), Julen Zubizarretak (gitarra), Unax Esnaolak (ahotsa), Markel Urangak (gitarra) eta Gorka Irisarrik (baxua) osatzen dute Amildegi taldea eta biharkoa Elgoibarren emango duten laugarren kontzertua izango da (Kultur Kafean, 20:00etan). Punk rock oi! musika egiten dute, eta 20-25 bat bertasio dituzte zuzenekoan emateko, tartean Lendakaris muertos, Kaleko Urdangak, Barricada, Kortatu eta Rotten XIII taldeen kantuenak. Gazteak dira oso taldekideak, baina badute eskarmentua. Gaizka Urangak, esaterako, Makis37 eta K.G.A.T. taldeetan ere jotzen du eta Julen Zubizarreta gitarra joleak, Cost Rebels talde debarran. Gune Askeko egitarauaren barruan



jo zuen Amildegi taldeak iaz, txosnagunean, eta Bosco Egunean eta Gaztetxean ere jotakoak dira aurrez. Zapatuan Kultur Kafean jotzeko aukera eman izanaz oso eskertuta daudela dio Urangak. "Mugimendua behar da herrian eta aukera hauek oso garrantzitsuak dira gurea bezalako taldeentzat. Etor daitezela kontzertura ondo pasatzeko gogo dutenak, gu geu hortara goaz eta", esan du.

Igandea izango da jaiotza mekanikoa ikusteko azken eguna

Etzi, hilaren 15a, izango da azken eguna Elgoibarko jaiotza mekanikoa bisitatzeko. Gaur, 17:00etatik 20:00etara egongo da zabalik, eta bihar eta etzi, 10:00etatik 13:00etara goizez, eta 17:00etatik 20:00etara arratsaldean. Urtero gehitzen dituzte pieza berriren bat edo beste

jaiotza mekanikoan eta aurtengoan artean gaztaina erretzaila eta palazioa sartu dituzte. Antolatzaileek jakinarazi dute, era berean, jaiotza mekanikoan jarri dituzte 30 bat arrain bizi ere banatuko dituztela eta nahi duenak bila gerturatu baino ez duela.

Antxitxikari elgoibartarren emaitzak 2023ko Mugertza krosean



Mintxeta Atletismo Taldeko kideak ere lehiatu ziren Mugertza krosean, eta Unax Egaña Oñederrak alebin mutilen lasterketan lortu zuen laugarren postua nabarmendu behar da. Guztira 21 elgoibartar lehiatu ziren Mugertza krosetako lasterketetan. Euren adineko saltakari onenen aurka lehiatzeko aukera eduki zuten Mintxetako atletek, horren ongi ezagutzen duten Mintxetako ingurunean, baina eszenatoki handi bihurtuta oraingoan. Ume eta gaztetxoek gainera, senior

gizonezkoen lasterketan ere hartu zuten parte bi saltakari elgoibartarrek, Mintxeta ordezkatzuz: Igor Torres Castillak eta Super Amara Bat taldeko elastikoarekin lehiatu zen Mikel Agirrebeña Iturbe. Ozta-ozta, baina biek lortu zuten lehen sailkatuek atzetik harrapatu aurretik proba bukatzea. 46. postuan helmugaratu zen Agirrebeña (39:55), eta 67. postuan sailkatu zen Torres (42:30).

(Saltakari elgoibartarren emaitzak eta argazkiak: barren.eus-en)

Bete da Kilimon Trail mendi lasterketako proba luzerako izen ematea

Martitzenean zabaldu zuten Kilimon Trail mendi lasterketarako izen ematea, 9:00etan, eta 12:00etarako beteta zeuden antolatzaileek lasterketa luzerako eskaini zituzten 250 dortsalak. Lizarpe Mendi Kluba eta Mendaroko Txirrindulari Elkarte dira antolatzaileak, eta jakinarazi dutenez 11 kilometroko lasterketa laburrerako libre dituzte oraindik dortsalak. Izena emateko eta informazio osoagoa jasotzeko: kilimontrail.com. Apirilaren 1ean jokatuko dute Mendaron Kilimon Trail mendi lasterketaren 11. ekitaldia, eta Euskal Mendi Federazioak (EMF) 2023. urterako mendi lasterketen txapelketen egutegian sartu du aurten ere. Zortzi probek osatuko dute txapelketa eta bigarregoa izango da Mendarokoa, martxoaren



18an Bedian jokatuko duten Kolazino Mendi Eguna lasterketaren ostean.

Gaur gauean jokatuko dituzte San Anton Pilota Txapelketako hiru finalak

Pilota jaialdi handiaz gozatzeko aukera izango dute gaur gauean Ikastolako frontoira joaten diren lagunek. Afizionatu mailako pilotari puntakoenak ikusteko aukera izango dute, horietako batzuk profesionaletara igaro aurretik. Iazko finalean aritu zen Aaron Arbizuk (Etxarri Aranatz, 1998), esaterako, Elgoibarren jokatu eta gutxira egin zuen debuta profesionalekin, Asperekin. Lagunak pilota eskolak estreinakoz antolatu duen emakumeen Lau t'erdiko txapelketaren finalekin hasiko da jaialdia, 21:30ean. Maialen Etxegarai oñatiarrak eta Miriam Arrillaga aginagarrak jokatuko dute finala. Etxegaraiak 22-16 irabazi zion filalurrekoa Naroa Agirreri. Beste finalurrekoan, Arrillagak 22-19 irabazi zion Miren Larrarteri.

Promesa mailako gizezkoen finalean, Unai Amianok (Aurrera Tolosa) eta Carmelo Lozak (Barberito) osatutako bikoteak, Beñat Zubizarreta (Lapke) eta Eneko Beloki (Gazteleku) izango dituzte aurkari. Zubizarretak eta Belokik 22-12 menderatu zituzten Ekhi Irribarria (Lapke) y Unax Landa (Oiarpe) urtarrilaren 5ean jokatu



zuten finalerdietako neurketan. Azkenik, senior mailako finalean, Iñaki Elolak (Aurrera Tolosa) eta Ekain Lizeagak (Mundarro) Ander Muruaren (Soraluze) eta Antton Apezetxearen (Umore Ona) aurka jokatuko dute. Muruak eta Apezetxeak Unai Mata (Oberena) eta Gorka Ugartemendia (Aurrera Tolosa) kanporatu zituzten finalerdietan, 22-0 emaitzarekin.

Lau Nazioen Txapelketa jokatu du Julen Urruzolak Alemanian, Espainiako taldearekin

Espainia, Alemania, Portugal eta Frantziako junior mailako eskubaloi selekzioak lehiatu dira, urtarrilaren 6tik 8ra bitartean, Alemaniako Hildesheim hirian jokatu duten Lau Nazioen txapelketan.

Hala, joan den udan Portugalen jokatu zuten Europako Txapelketaren finalera heldu ziren bi taldeek, Espainiak eta Portugalek, berriro elkarren aurka jokatzeko aukera izan dute. Finala irabazi zuen taldean zen Julen Urruzola elgoibartarra, eta oraingoan ere deitu du Rodrigo Reñones hautatzaileak. Lehen partidari Frantziako taldea izan zuten aurkari eta 32-35 irabazi zuen *Hispanos Junior* moduan ezagunak diren taldeak. Bigarren jardunaldian egurra jaso zuen Espainiak etxeko taldearen aurka, 43-22ko emaitzarekin galduta. Aldiz, garaipen batekin agurtu zuten txapelketa Portugal 31-26 irabazita. Rodrigo Reñonesek zuzentzen duen taldea ekainaren 20tik uztailaren 2ra bitartean Alemaniak (Berlin, Magdeburgo eta Hannover) eta Greziak (Atenas) antolatuko duten junior mailako Munduko Txapelketarako prestatzen ari da, eta adin tarte honetako eskubaloi selekziorik onentsuenen aurka lehiatzea prestaketa ezin hobea izan dela adierazi du entrenatzaileak. Urruzolak Bidasoa Irun taldean taldekide dituen Gorka Nieto, Eneko Furundarena, Julen Mujika eta Asier Iribar izan ditu lagun selekzioan.



LANA

Eskaerak

Adinekoak zaintzeko prest nago, orduka. Gauzez eta asteburuetan ere bai. **631 212 497**

Adinekoak zaintzeko eta garbiketara lanak egiteko prest nago. Orduka ere bai. **613 819 233**

Adinekoak zaintzeko eta garbiketara lanak egiteko prest nago. Euskalduna naiz eta titulua daukat. **626 490 986**

Arratsaldetan, 17:00etatik aurrera, etxean eskola errefortzuak emateko prest nago LHko eta DBHko ikasleentzat (hizkuntzetan eta ikasi beharreko ikasgaietan). **666 667 183**

Adinekoak zaintzeko prest nago. Zaintzarako behar diren agiri guztiak ditut. **643 071 900**

Adinekoak zaintzeko edo garbiketara lanak egiteko prest nago. **647 533 201**

Adinekoak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest nago. Orduka edo etxeko langile moduan. Titulua daukat. **641 322 939**

Eskaintza

Fadek ile-apaindegirako langilea behar da. **943 742 692 / 624 646 336**

ETXEBIZITZA

Etxe polita alokatzen dut, San Frantzisko kalean. 4. pisua, igogailurik gabe. Logela bat, egongela, sukaldea, komuna... **660 042 159** (arratsaldez)

ARAMBURU BITXIDENDA
60. URTEURRENA ELGOIBAR

URTERO BEZALA, BITXI DENDAN ZOZKETA EGIN DUGU. 2023KO ZENBAKI IRABAZLEAK ETA ORDEZKOAK HAUEK DIRA:

1. SARIA 600 €-ko bonua bitxi dendan gastatzeko	2. SARIA 600 €-ko bonua bitxi dendan gastatzeko
Zbkia.: 433	Zbkia.: 1.998
Ordezko zbkia.: 1.072	Ordezko zbkia.: 1.460

San Frantzisko, 26 Tel./faxa: 943 742 535

administradores
Consejo Técnico de Colegios de Administradores de Finanzas
Euzkoako Enkainatutako Lanarabakuntza

ROSA Mª PINTADO

Etaldearen Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcalá de Henaresko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

660 969 679
rosapf@telefonica.net


Gure komunitateko etxe-jabe batek ate bat zabaldu du barne-patio batean eta ate horrek bere etxera ematen du. Modu horretan bere egin nahi du espazio hori. Presidenteari jakinarazi dio patio hori bere etxearen parte dela, hogeita hamar urtean baino gehiagoan erabili duelako eta inork ez diolako kargu hartu. Jakin nahiko nuke zer egin dezakegun.

Auzitegi gehienek iritziz ezin da gune komun bat jabetzan hartu denbora luzean erabili duelako. Kode Zibilari egiten diote erreferentzia argumentu gehienek. Kode Zibilak dio ezin dela ezer jabetzan hartu beste inork kontrarik esan ez duelako. Argi utzi behar dugu kontu bat: ez gara elementu komun bati erabilera pribatua emateko eskubideaz ari. Hemen galdera beste bat da: hemen jakin nahi dena da patioa erabiltzen zuen bizilagun horrek bere ondasuntzat har dezakeen berez jabeakide guztiena den gune hori. Esan behar da elementu pribatiboen kasuan beste kontu bat dela, garaje-plaza bat, esate baterako, hartu daitekeelako jabetzan. Eta berdin gertatzen da hasieran elementu komunak izanda ere jabetza pribatukoak bihurtu direnekin. Baina horiek salbuespenak dira. Adibide ohikoetan zer gertatzen den galdetzea beti dator ondo. Korridoreetan hesiak, atek edo antzeko elementuak jarrita berea ez den espazio bat bere egin nahi duen bizilaguna salatzea komeni izaten da beti, eta salaketa jar dezake beste bizilagun batek edo komunitateak berak, prozedura arruntaren bidez.

Aholkua: Komeni da argitzea elementu komunak norberarentzat hartzea eta haien erabilera gehiegizkoa egitea bi gauza direla. Erabilera gehiegizkoa da, esaterako, larrialdi-irteera batean bizikletak aparkatzea.

GOAR AHOLKULARI KOLABORATZAILEA
San Bartolome, 2



Argazkiak eguzten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENEKO bulegora, barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara edo  **688 655 658** bidalita.



Zorionak, **Intza!**
Gaur 5 urte haundi gure txikixak! Patxo potolo bat, familixakuen partez.



Zorionak, **Alex**, zorionak!
Bixar urtetxo bat beteko dozu! Patxo haundi bat etxeko guztion partez. Besarkada berezia, Sararen eta Martinen partez!



Zorionak, **Noa**,
7 urte bete dituzulako. Familiako guztion partez. Asko maite zaitugu.




Zorionak, **Lucia!**
Segi orain arte bezain alai! Muxu handi bat, bereziki Alex eta Mikelen partez!



Zorionak, **Ander**, 8 urte bete dituzulako. Etxeko guztion partez, muxu handi bat.



Zorionak, **Noa!**
Gaur 8 urte! Ondo pasa eguna zure lagun eta familiakoekin.



50 urte jada elkarrekin zoriontsu izaten. Familiakoen partez, zorionak eta jarraitu horrela!



- IDAZMAKINEN SALMENTA
- ETA KONPONKETA
- MULTIKOPISTAK
- FOTOKOPIAGAILUAK
- ERLOJU INDUSTRIALAK
- MARRAZKETA MATERIALA
- INFORMATIKA
- FAXA

MEKANOSA
Errosario, 27-Elgoibar
943 740 284



PINTURA ETA DEKORAZIOA
CORDON VILARCHAO
cordonvilarchao@telefonica.net
San Roke, 7 - Olasope, 18, Pab. 25-26
943 740 570 / 636 986 162

Jon Aranoa
Guillermo Torres



San Roke, 26 - 20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)
Tel: 943 740 704 - 639 047 337
Asteleheneratik ostiraleraz: 11:00 - 13:00 / 16:30 - 19:30
Larunbatak: 11:00 - 13:00

*Leopaindegi zerbitzua daukagu.
Datu ardua hartzeko.*

EXPRESS ESKAINTZAK!

**BOSCH SMS25AW05E
ONTZI-GARBIGAILUA**



399 €

- 12 zerbitzu
- Karga erdia
- 84,5 x 60 x 60 cm.
- VarioSpeed funtzioa: %65eko denbora gubiagoan
- Hasiara geroratu
- EcoSilence motora

MILARBIRE
Ubitarte, 11 - 943 741 487 - bire@milar.es
Dendako prezioak. Produktuak agortu arte.

BARREN astekaria
ADII! Telefono zenbaki berria dugu:
 **688 655 658**

Whatsapp mezuak bidaltzeko
zenbaki berria
erabili behar duzue aurrerantzean!



13 BARIKUA

16:30 Odol ateratzeak Elgoibarren. Jubilatuen Biltokian. Txanda hartzeko: 623 328 408

19:00 Antzerkia: 'Sexberdinak'. Tanttaka Teatroak taularatuko du, Herriko Antzokian.

21:30 San Anton pilota txapelketako finalak. Lagunak pilota elkarteak antolatuta, Ikastolako frontoian.

23:00 Kontzertua: Odei. Sinuõsek antolatuta, Kultur Etxeko sotoan.

14 ZAPATUA

12:00 Zigilu erakusketa. Aitzolatarren Dorretxeak antolatuta, Kultur Etxean egongo da ikusgai, hilaren 21era arte.

20:00 Kontzertua: Amildegi. Kultur Kafean.

Zinea



'El viaje a París de la señora Harris'

14 zapatua: 19:00 / 22:15
15 domeka: 19:00
16 astelehena: 21:00

'Kung Food'

15 domeka: 16:30

17 MARTITZENA

11:00 Meza nagusia. San Bartolome parrokian.

11:30-14:00 eta 16:30-

19:30: Umeentzako parkea, Kalegoen plazan eta Aita Agirren. Euria egiten badu, Sigman.

12:30: San Antonetako kontzertua. Emudafek antolatuta, Herriko Antzokian.

17:30: Erraldoi, buruhandi eta zezenzikleten kalejira, herriko dultzaineroekin.

19 EGUENA

19:00 Hitzaldia: 'Dolmenen Ibilbidea 2020-2022: Emaizak eta helburuak, Jesus Tapia'. Morkaikok antolatuta, Aita Agirreko areto nagusian.

20 BARIKUA

17:00 eta 19:00 Antzerkia: 'Urteak bete, abenturak bizi'. Pirritx, Porrotx eta Marimototsek ikuskizun berria taularatuko dute Herriko Antzokian.

19:00 Zine foruma: 'La directora de orquesta'. Haizeak antolatuta, Lilan.

2023ko botika ordutegiak: 09:00-13:00 / 16:00-20:00

GUARDIAK: Egunez: 09:00-22:00 Larunbatak: 09:00-14:00 (■)

OHARRA: 2023an ez da iluntzeko farmazia zerbitzurik egongo Elgoibarren.

URTARRILA

13 BARIKUA
14 ZAPATUA
15 DOMEKA
16 ASTELEHENA
17 MARTITZENA
18 EGUAZTENA
19 EGUENA
20 BARIKUA

Egunez

Yudego
■ Oruesagasti / ■ Arriola
■ Oruesagasti
Barrenetxea
■ Ibañez
Garitaonandia
Arriola
■ Fernandez

2023 urte guztian, gaez: 22:00-09:00

Cristina Sanchez Castaño - Julian Etxeberria, 7 (Eibar)
943 203 052

■ Fernandez:

Herriko Enparantza,4
Garagartza (Mendaro)
943 756 142

■ Ibañez:

Rekalde, 1 (Soraluze)
943 751 638

■ Oruesagasti:

Kalebarren, 9 (Soraluze)
943 751 384



Ma Lourdes Juaristi San Martin

2023ko urtarrilaren 5ean hil zen, 88 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

***Ez zaitugu inoiz ahaztuko,
ez zaitugu inoiz galduko
gure bihotz barrenean
eramango zaitugu betiko.***

Etxekoak




Natividad Pradera Malaxecheverria

2023ko urtarrilaren 5ean hil zen, 96 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

***Izan zerana,
erakutsi dozun kemena
gure artean geldittuko da
zugandik jasotako dana.
Maitte zaittugu.***

Etxekoak



III. URTEURRENA

Ramon Aramburu Igarzabal

2020ko urtarrilaren 3an hil zen, 84 urte zituela. Haren oroimenez III. urteurreneko meza izango da, domekan, urtarrilaren 15ean, 11:00etan, Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian. Joango zaretenoi, alde zurretik eskerrak.

***Gizon umila, gizon alaia,
argi ta eskuzabala;
aita, senar ta lagun artean
izan zara espeziala.
Urteak gogor ta hotz jo gaitu
hasi eta berehala...
Jakin gure bihotzetan beti
bizi izango zerala.***

Etxekoak





Mara
Laka
Morais

4 urte, Elgoibar



"Basoko animaliak"



Nikole
Gorriti
Gonzalez

4 urte, Elgoibar



"Etxekoak"



Jon Salegi Zulaika

"Sarobe"

2023ko urtarrilaren 8an hil zen, 51 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

**Zuk utzitako hutsunea
familian da nabarmena.
Izar berri bat jaio da,
distiraz beterik dagoena.
Zure irribarre eder horrekin
jarrai argitzen gure bihotz barrena.**

Etxekoak



Jon Salegi Zulaika

"Sarobe"

2023ko urtarrilaren 8an hil zen, 51 urte zituela.

**Zure txispak eta grinak bildu gintuen harri tiraka,
elkarrekin hamaika lagun-giro eder bizi-az.
Guri eta herri kirolei emandako guztiagatik
beti egongo zara gurekin, Jon.**

Mendaroko giza proba taldeko
zure lagunek, bihotzez.




Jon Salegi Zulaika

"Sarobe"

2023ko urtarrilaren 8an hil zen,
51 urte zituela.

**Elgoibarko lankideak, beti zurekin.
Ez zaitugu ahaztuko.**



G R E M I O N E N G I D A

ELEKTRIZITATEA

egoluz 

ELEKTRIZITATEA S.L.

Andres: 630 957 345
677 512 462

Pedro Migel Uruzuno, 14 beheha
20870 ELGOIBAR

Bulegoa: **943 200 697**
ego.luz@hotmail.com

ARROZTEGIA

Ulazia

ARROZTEGIA ETA ENBALAJEAK

Albixuri industrialdea, 1-O/1-P
943 740 547



ITURGINTZA

SANTANA 

 Igor Santana

ITURGINTZA ETA INSTALAZIOAK S.L.

Urazandi kalea, 17, beheha
Elgoibar

943 740 530 / 605 714 905
santanaiturgintza@gmail.com



ARROZTEGIA

iraolagoitia

aroztegia - altzariak - elxe-aldaketak

Kurutz-gain industrialdea, 9
20850 Mendaro

943 756 112
636 497 485

www.iraolagoitia.com

ITURGINTZA

PAGOAGA S.A.

BULEGOA ETA ERAKUSKETA

Pedro Migel Uruzuno, 8
943 740 512
Fax: 943 743 565
tienda@pagoagasa.com
www.pagoagasa.com

BILTEGIA

San Antolin, 13 - ELGOIBAR
taller@pagoagasa.com
943 740 279

LEIHOAK

LODOSO LEIHOAK

SIGMA INDUSTRIALDEA, 223
lodosofj@gmail.com

943 743 490

ARROZTEGIA

MAR
ARROZTEGIA

Olaso industrialdea, 17 beheha

943 531 471
609 054 978

carpinteriamar@hotmail.com





PINTURA

BIOK
dekorazioa

Uparitzaga, 14 - Elgoibar

943 741 552
606 431 120

biok@biokdekorazioa.com

ARROZTEGIA

BIENA S.L.
ARROZTEGIA

Ermuaranbide, 12-14-16
tel/fax. 943 743 116
www.biena.eus
info@biena.eus



ERREFORMAK

ESTUDIOS ARRILLAGA

Errosano kalea, 15 beheha - Elgoibar

- Proiektuak eta erreformak
- Sukaldeak
- Gremioen koordinazioa
- Obren zerbitzu integrala

943 744 019
605 713 168

Gidan agertzearen onurak!

 **943 743 704**
 **688 769 657**

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

Aita Agirre Kulturunea, 3. 3. ezk
20870 ELGOIBAR

22€
hilan

12
aldiz urtean

4.885
ale astero

22 Eren truke, hilerio, zure enpresaren datuak eta irudia erakutsiko ditugu **BARREN** astekaritan.

BARREN astekaria da Elgoibar eta Mendaron erakusleiho ikusiena.

4.885 ale banatzen ditugu Elgoibarren eta Mendaron **DOAN**.

Eman bultzada euskarari eta lagundu gure proiektua finantzatzen.